Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1568

EBAZPENA, 2009ko martxoaren 5ekoa, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearena, 2009ko laguntzetarako deialdia ezagutarazten duena, industria ikerketako eta garapen esperimentaleko proiektu integratuak —izaera estrategikokoak— EAEn burutzeko laguntza-programa arautzen duen aginduak ezarritakoaren esparruan. Etorgai Programa.

Industria ikerketako eta garapen esperimentaleko proiektu integratuak —izaera estrategikokoak— EAEn burutzeko laguntza-programa -Etorgai Programa- arautzen du Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko abuztuaren 6ko Aginduak (2008ko abuztuaren 26ko EHAA, 162. zenbakia).

Aipatutako aginduaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da hor iragarritako diru-laguntzak emateko 2009ko ekitaldirako deialdia egitea, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak ematea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako aurrekontu-ataletatik aterako dira laguntza horiek emateko erabiliko diren diru-baliabideak.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 9. artikuluan ezarritako eskumenaren arabera, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xede da Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko abuztuaren 6ko Aginduan aurreikusitako laguntzen deialdia egitea 2009ko ekitaldirako. Industria ikerketako eta garapen esperimentaleko proiektu integratuak -izaera estrategikokoak- EAEn burutzeko laguntza-programa arautu zen agindu horren bidez. Etorgai Programa.

Helburu hori betetzeko, guztira 20.000.000,00 euro bideratuko dira, honela banatuta: 2009. urterako 2.000.000,00 euro, 2010. urterako 9.000.000,00 euro eta 2011. urterako 9.000.000,00 euro zuzenduko dira horretara, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan arlo horretarako izendatutako aurrekontu-kredituari jarraituz.

Deialdi honi lotuta emango diren diru-laguntzen zenbateko osoa ez da izango artikulu honetan finkatu-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

1568

RESOLUCIÓN de 5 de marzo de 2009, del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial, por la que se hace pública la convocatoria de ayudas para el ejercicio 2009, en el marco establecido por la Orden que regula el programa de apoyo a la realización de proyectos integrados de investigación industrial y desarrollo experimental de carácter estratégico en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Programa Etorgai.

La Orden de 6 de agosto de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo (BOPV n.º 162, de 26 de agosto de 2008), regula el programa de apoyo a la realización de proyectos integrados de investigación industrial y desarrollo experimental de carácter estratégico en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Programa Etorgai.

De conformidad a lo establecido en el artículo 9 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en la misma se establecen, para el ejercicio 2009, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 9 de la orden de referencia,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria para el ejercicio 2009 de las ayudas previstas en la Orden de 6 de agosto de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, por la que se regula el programa de apoyo a la realización de proyectos integrados de investigación industrial y desarrollo experimental de carácter estratégico en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Programa Etorgai.

Para este fin se destinará un total de 20.000.000,00 euros, desglosados de la siguiente manera: 2.000.000,00 euros para 2009, 9.000.000,00 euros para 2010 y 9.000.000,00 euros para 2011, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El volumen total de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria no podrá superar el importe

tako diru-kopurutik gorakoa, ezta, indarrean dagoen legeriari jarraituz, kredituen arteko loturarik edo aurrekontu-aldaketarik badago, prozedura ebatzi aurretik lehengo kopurua eguneratuta sortutako diru-kopurutik gorakoa ere. Horrelakorik jazoz gero, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearen ebazpenez emango da horren berri.

2. artikulua.– Betekizunak.

1.– Deialdiaren gai diren laguntzez baliatu ahal izateko, proiektuei eta onuradunei buruz Etorgai programa arautzen duen aginduaren 4. eta 6. artikuluetan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatu beharko da.

2.– Eskabideak eta gainerako agiri osagarriak, SPRI, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Herri Baltzuan aurkeztu beharko dira (Bilbao, Urkixo Zumarkalea 36, 4. solairua, Bizkaia Plaza eraikina), bai zuzenean, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako bideren bat erabilita.

3.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eta 2009ko apirilaren 30ean amaituko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Deialdi-ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 5a.

Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordea,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

consignado en este artículo o el que resulte, en su caso, de su ampliación, con carácter previo a la resolución del procedimiento, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. De producirse dicha circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial.

Artículo 2.– Requisitos.

1.– Para poder acceder a las ayudas objeto de convocatoria deberá acreditarse el cumplimiento de los requisitos establecidos, en relación con los proyectos y beneficiarios, en los artículos 4 y 6 de la Orden que regula el programa Etorgai.

2.– Las solicitudes y demás documentación complementaria se presentarán en la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (Spri) cuyas dependencias se encuentran en Bilbao, Alameda Urquijo, n.º 36–4.ª planta (Edificio Plaza Bizkaia), bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución y finalizará el 30 de abril de 2009.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de marzo de 2009.

El Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.